



INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA  
ETA ETXEBIZITZA SAILA  
Ingurumen Sailburuordetza  
Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,  
PLANIFICACION TERRITORIAL Y VIVIENDA  
Viceconsejería de Medio Ambiente  
Dirección de Administración Ambiental

**EBAZPENA, 2018ko urriaren 19koa, Ingurumen Administraziooko zuzendariarena, zeinaren bidez formulatzen baita Tolosako (Tolosaldea) jardute-eremuko Lurralde Plan Partzialari buruzko behin betiko ingurumen-txostena.**

### EGITATEZKO AURREKARIAK

2018ko ekainaren 15ean, Tolosako (Tolosaldea) jardute-eremuko Lurralde Plan Partzialari dagokion ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozedura bateratuaren behin betiko txostena emateko eskaera egin zuen Lurralde Antolamendurako Zuzendaritzak, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Legeak eta Plan eta programa jakin batzuek ingurumenean eragiten dituzten ondorioak ebaluatzeari buruzko apirilaren 28ko 9/2006 Legeak xedatutakoaren arabera.

Ingurumen Sailburuordetzak 2006ko ekainaren 13an emandako ebazpenaren bidez igorri zen «Tolosako (Tolosaldea) jardute-eremuko Lurralde Plan Partzialaren» ingurumen-inpaktuari buruzko alde zuzeneko txostena. Dokumentu hori Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendurako Zuzendaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatu zuten.

2013ko urriaren 15eko gobernu-kontseiluaren erabaki bidez eman zitzaion hasierako onarpena planari, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak 2013ko maiatzaren 22an igorritako txostenean jasotako baldintzetan.

Plana jendaurrean jarri zen 2013ko azaroaren 11tik 2014ko uztailaren 30era arte, zegozkion akordioen arabera eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Estatuko Aldizkari Ofizialean eta gure autonomia-erkidegoan tirada handiena duten egunkarietan argitaratutako iragarkietan. Era berean, araudi foral, autonomiko eta estatalean jasotako nahitaezko txostenak eskatu ziren planaren eragina jasaten duten administrazioei eta publiko interesdunari egindako kontsulta-izapidearen barruan.

Behin jendaurreko informazio-izapidea eta eragina jasaten duten administrazioei eta publiko interesdunari egindako kontsulta-izapidea burututa, 19 alegazio eta 8 txosten jaso dira. Dokumentu horien guztien edukiak eta emaitzak administrazio-espeditentean ikus daitezke.

Honako dokumentazio hau bidali zen Gipuzkoako Foru Aldundiaren Lurralde Antolamendurako Zuzendaritzak 2018ko ekainaren 15ean osatu zuen eskaerarekin batera:

- Tolosako (Tolosaldea) jardute-eremuko Lurralde Plan Partziala. I. liburukia. Txostena. 2017ko maiatzeko ekonomia- eta finantza-azterketa eta exekuzio-programa.
- Tolosako (Tolosaldea) jardute-eremuko Lurralde Plan Partziala. II. liburukia. 2017ko maiatzeko antolamendu-arauak eta udal-planeamenduaren gaineko eraginei buruzko dokumentu osagarria.
- Tolosako (Tolosaldea) jardute-eremuko Lurralde Plan Partziala. III. liburukia. Ingurumen-inpaktuaren ebaluazio bateratuaren azterketa, 2017ko maiatzekoa.
- Informazio-planoak (10) eta antolamendu-planoak (6).
- Administrazio-espeditentea, besteak beste, honako hauek biltzen dituen: jendaurreko informazioaren izapidearen emaitzaren dokumentu deskribatzaileak eta eragindako administrazioei eta publiko interesdunari egindako kontsulta-izapidea.

## ZUZENBIDE-OINARRIAK

Plan eta programa jakin batzuek ingurumenari eragindako ondorioen ebaluazioari buruzko apirilaren 28ko 9/2006 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, hauek dira haren helburuak: garapen jasagarria sustatzea, ingurumenaren babes-maila handia erdiestea, eta plan eta programak prestatzean eta martxan jartzean ingurumen-irizpideak txertatzen direla sustatzea. Horretarako, ingurumenean eragin esanguratsua izan dezaketen aspektuen ingurumen-ebaluazioa egingo da.

Era berean, Ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorren 42. artikuluekin bat etorritik, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioak era egokian bermatuko dira. Helburua, besteak beste, ingurumenean dauzkan ondorioen analisia plangintza-prozesuaren lehen faseetan sartzeta da, aukerarik egokienak hautatzeko xedearekin, jarduerak eragindako metaketa- eta sinergia-ondorioak aintzat hartuta.

Apirilaren 28ko 9/2006 Legearen 3. artikuluan xedatutakoaren arabera, plan eta programei ingurumen-ebaluazioak egingo zaizkie, bai eta haien aldaketei ere, baldin eta eragin garrantzitsua izan badezakete ingurumenean, administrazio publiko batek lantzen edo onartzen baditu, eta haien prestaketa eta onarpena legezko edo arauzko xedapen batek galdatzen baditu, edo Ministro Kontseiluak edo autonomia-erkidego bateko Gobernu Kontseiluak hartutako erabaki baten ondorio badira. Berdin, otsailaren 27ko 3/1998 Legearen arabera, ingurumen-ebaluazio objektu izango dira arau honetako I A eranskinean jasotako plan eta programak.

Halaber, apirilaren 28ko 9/2006 Legearen 7. artikuluan eta hurrengoetan eta Planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzeko uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuaren 11. artikuluan eta hurrengoetan adierazitakoaren arabera, bai Gipuzkoako Foru Aldundiak, plana izapidetzeko ardura duen organo gisa, bai Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak, ingurumen organo gisa, beharrezko den guztia xedatu dute Planaren ingurumen-ebaluazio estrategikoen prozedura burutu ahal izateko, ingurumen-eraginari buruzko baterako ebaluazioaren azterketa baten bidez, kontsulta publikoen eta eragina jasaten duten administrazio publikoen eta interesdunen parte-hartze prozeduraren bitartez.

Planaren ingurumen-ebaluazioaren espedientean dauden dokumentu teknikoak eta txostenak ikusi dira, eta egiaztatu da ingurumen-eraginari buruzko ebaluazio bateratuaren azterketa egokia dela eta indarreko araudian aurreikusitako irizpideekin bat datorrela, Planaren ingurumen-inpaktuari buruzko alde aurreko txostenean jasotako baldintzak barne. Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legearen arabera eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 77/2017 Dekretuaren arabera, Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza erakunde eskuduna da, eta ingurumen-eraginari buruzko behin betiko txosten hau egin du. Honen bidez, egoki iritzi dio planaren proposamenean txertatzeari ingurumen-irizpideak, eta plana ingurumen-efektuei aplikatzeak dakartzan ondorio esanguratsuen aurreikuspenari buruzko ustea eman du, gain hartu behar izango diren azken buruko erabakiak barne.

Honako araudi hau ikusi da: Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legea; hainbat planek eta programak ingurumenean duten eragina ebaluatzeari buruzko apirilaren 28ko 9/2006 Lege Orokorra; 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena; 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoa; Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 11ko 77/2017 Dekretua, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea eta aplikazio orokorreko gainerako arauak.

**EBAZTEN DUT:**

**Lehenengo.-** Tolosako (Tolosaldea) jardute-eremuko Lurralde Plan Partzialaren ingurumen-eraginari buruzko behin betiko txostena ematea, Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatuta, jarraian jasotzen diren baldintzetan:

**A.-** Honako Lurralde Plan Partzial honen xedea Tolosako (Tolosaldea) jardute-eremua antolatzea da. Horretarako, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko 4/1990 Legeak, maiatzaren 31koak, eta eremu horretan aplikagarriak diren Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen edukiek ezarritako zehaztapenak garatuko dira, betiere aipatutako legean aurreikusitakoarekin bat etorriz. Jardute-eremua Gipuzkoa lurralde historikoan dago, eta 28 udalerri biltzen ditu: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Legorreta, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil.

Tolosaldeako jardute-eremuko Lurralde Plan Partzialaren xede orokorra da udal planeamenduak eta politika sektorialak koordinatu eta integratuko dituen erreferentziazko esparru bat ezartzea. Horretarako, LAGen xedeak garatu, udal garapen-planeamenduek izan beharreko irizpide orokorrak ezarri eta prozesua orekatua eta jasangarria izan dadin, ekonomia-, ingurumen- eta lurralde-aspektuak antolatzea ahalbidetzen duen lurralde-garapenerako estrategia bat definitzea da xedea.

Inguruabar horiek oinarri, Tolosaldeako Lurralde Plan Partzialak honako irizpide nagusi hauek ezarri ditu garapen-planeamendurako:

- Eskualdeko baliabide naturalak eta euren paisaia- eta ingurumen-kalitatea babestea, hobetzea eta balioestea, eskualdearen etorkizuneko garapen jasangarriko oinarritzko aktiboak direla ulertuta.
- Asentamendu-sistema koherentea, orekatua eta EAEko hirien sisteman integratua lortzea. Sistema hori herrien arteko osagarritasun funtzionalean eta hiriguneen eta landaguneen arteko harreman-mota berri batean oinarrituko da, garapenari eta arlo horretako herritarren arteko kohesio ekonomiko eta sozialari laguntze aldera.
- Jardute-eremua kanpoko garapen-ardatzetan integratzea eta bere egituraketa indartuko duen azpiegitura-sistema bat garatzea, ereduaren oinarritzko elementuen arteko harreman funtzionalak hobetuko dituzten konexioen bitartez, baita herritarrek komunikaziorako eta informaziorako duten irispideari mesede egin eta beren bizi-kalitatea hobetzea ere.

Irizpide orokor horiek Lurralde Plan Partzialak proposatutako esku hartzeko eremu bakoitzeko antolamendu-irizpide eta -xedeetan zehaztuta daude:

**Ingurune fisikorako:**

- Jardute-eremuan dauden intereseko naturaguneen babes eraginkorra bermatzea.
- Egun dauden tokiko baso-masa handiak babestea, beren kontserbazioa lortu eta, hala badagokio, beren kalitate ekologikoa hobetzeko; horrela, baso-masen azalera handitzea ere ahalbidetuko da.
- Fauna- eta flora-espezie basatiak babestea, beren genetika-aniztasuna eta habitatak errespetatuz eta espezie mehatxatuetan arreta berezia jarritz.
- Desplazamendu-arriskua duten eremuetako landare-estalduraren mantenua eta/edo hobekuntza bermatzea, horretarako landare-estalduran eragin kaltegarria duten jarduketak bertan egitea saihestuz.
- Drainatze naturaleko sarea babestea ibaiertzetako ekosistemen kalitatea mantenduz edo hobetuz, ekosistema horietan eragina duten faktoreei arreta emanez (aldaketak, isurketak...).



- Lurrazpiko ur-baliabideen kalitatea mantendu eta/edo hobetzea eta baliabide horiek gehiegi ustiatzea saihestea, hiri-hondakinak, nekazaritza eta abeltzaintzako hondakinak eta baso ustiaketatik etorritakoak kontrolatuz.
- Harrera-ahalmenarekin bateragarri ez diren jarduerak direla-eta degradatutako lurzorua lehengoratzeari sustatzea (utzitako harrobiak eta hondakindegia, meatze-inguruak eta higadura-arriskua duten zonaldeak).
- Multzo paisajistiko baliotsuak eta kultur ondarea babestea.
- Nekazaritzako jarduerak eta balioak mantenduko direla bermatzea, baita kalitate handieneko lurzorua babestea ere.
- Orain arte erabili ez diren edo nahikoa aprobetxatu ez diren baliabide naturalen aktibazioa sustatzea, landa-ingurunea garatzeko eta baliabide naturalak zentzuz erabiltzeko estrategia orokorraren barruan.
- Atsegin hartzeko eta turismorako erabilera modu antolatuan sustatzea, ekipamendu ludiko eta kulturalen bidez. Ondare naturalistiko eta kulturean oinarritutako ekipamendu horiek lurraldearen erabilera sustatuko dute.

#### Asentamendu-sistematarako:

- Lehendik zeuden bi hiri-sistemen eredu integrala indartzea. Bi sistema horiek, batetik, Tolosa-Ibarra multzoan eta, bestetik, Villabona-Elbarrena multzoan oinarrituta antolatzen dira, eta maila txikiagoko herrigunez eta landagunez osatuta daude.
- Aipatutako herriguneen integrazio funtzionala, elkarren arteko osagarritasunak lagunduz.
- Hiri nagusiak indartzea eta dagokien maila areagotzea, herriguneak ondo integratuz eta lortu nahi den hiri-kategoriaren arabera elementuen eta funtzioen zuzkidura eginez.
- Hiri-kalitatea hobetzea, beharrezkotzat jotzen diren eragiketen bidez, hala nola: narrituta edo zaharkituta dauden esparruak aldatzeko edo lehengoratzeko eragiketak; hiri multzoak eta herrigune historikoak babesteko eta birgaitzeko eragiketak, eta berrekipamendu-eragiketak; bai eta jardute eremuko biztanleriarentzako eta produkzio-sistemaren beharretarako etxebizitzaren eta ekonomia-jardueretarako eskaintza egokia egitea ere.
- Lurralde-desorekak zuzentzea. Horretarako bide izango dira honakoak:
  - a. Bizitegitarako eta izaera estrategikoko ekonomia-jardueretarako garapen berrien ekintza selektiboak, harrera-ahalmen handieneko udalerrietan, eremu asentatuen birkualifikazio, berrekipamendu eta hobekuntzarako jarduerekin, bertako tentsioak arintzeko eta herriguneen arteko integrazioa eta osagarritasuna lortzeko.
  - b. Landa-garapenerako politika, ekonomia-oinarria dibertsifikatua duena eta lehen sektorearen alternatibak, bizitegi-eskaintza alternatiboa, kultur eta ingurumen-zerbitzuen berrekipamendua eta integrazioa, telekomunikazioen garapena eta garraio publikoaren hobekuntza ahalbidetuko dituen.

#### Azpiegituratarako:

Tolosako (Tolosaldea) jardute-eremuko Lurralde Plan Partzialak ondorengo helburu orokorrak finkatu ditu bide-komunikazioko eta garraiorako sistemari dagokionez:

- Jarduera-eremua kanpoko ardatzetan integratzea, hiriburuen euskal sistemarekin, inguruko eremu funtzionala udalerri nagusiekin eta indartzen ari diren ekoizpeneekin dituen loturak indartuz.
- Udalerri nagusien, hiri-inguruen eta landa-inguruen arteko egituraketa eta elkarreragina sustatzea.
- Gaur egungo garraio- eta komunikazio-sistema hobetzea, ondorengo irizpideak kontuan hartuta:
- Administrazioek, garraio-politika komun bati jarraituz, modu koordinatuan egitea plangintza eta antolamendua.
- Intermodalitatea oinarrian duen garraio-politika bat garatzea.
- Garraio publikoari lehentasuna ematea:
  - Garraio publikoaren instalazioak eta ekipamenduak hobetzea.
  - Trena sustatzea salgaien garraiorako.
- Garraiobide ez-motorizatuak eta/edo ingurumena gutxiago kaltetzen duten garraiobideak sustatzea.
- Ibilgailu pribatuaren erabilera mugatzea.

Honako hauek ere izango dira hautaketa egiteko irizpideak:

- Errepide-sistemako elementuen arteko egituraketa hobetzea. Horretarako, Kanpoko Sarbide Sare Nagusian eta hiri-sarearen arteko erlazioa hobetzea.
- Errepide-sareen funtzio-aniztasuna sustatzea, batez ere Tokiko Sarbide Sare Nagusian. Horrela, hiri-sistemak erlazionatzeko eta egituratzeko dagokion funtzioa indartuko da, eta dagokion sektorean trafiko-bide hutsaren kontzepzioa gainditu, batez ere hiri-zeharbideetan.
- Sarearen funtzionaltasun integrala osatzea, sistemarako halabeharrezkoak diren zerbitzuen bitartez, besteak beste, autobus-geltokiak eta aldaguneak.
- Kasuan kasuko azterketak eginda, azpiegiturak zentzuz ezartzea, lurraldeko zerbitzuak integratzeko eta optimizatzeko estrategien bitartez, eta ubideak, sareak eta trazadurak kontzentratuz, kalteak ahalik eta gehien murriztuz eta ingurune fisikora egokitutako diseinu kualifikatuak eginez.

Irizpide horiek jarraian datozen proposamenetan garatzen dira:

### 1. Ingurune fisikoa.

- 1.1. Lurzoru urbanizaezinaren eremua zehaztea eta sailkapen orokor bat egitea.
- 1.2. Babestu, hobetu eta/edo lehengoratzeko eremu berriztat definitutako esparruak mugatzea, gaur egungo Naturagune Babestuak eta Natura 2000 Sarea osatzeko, eta bertako jarduerak dagokien kategorizazioaren arabera arautzea.
- 1.3. Ondarea kontserbatzeko, birgaitzeko eta integratzeko planak egitea jardute-eremuko plan partziala garatzeko, baita dagozkien programak eta garatuko dituzten ekintzak ere.

### 2. Azpiegiturak eta zerbitzuak.

- 2.1. Aduna-lkaztegieta bide-ardatza errekuuperatzea eta Tokiko Sarbide Sare Nagusiko bideak gutxinaka-gutxinaka bihurtzea hiri-zentraltasuneko edo hiriarteko artikulazioko ardatz.
- 2.2. Elbarrenako eta Ibarako saihebidetza.
- 2.3. RENFERen ibilbidea aldatzea Villabona eta Anoeta artean.
- 2.4. Euskal Trenbide Sare berria eraikitzea.
- 2.5. Saneamendu-sarea eta Adunako HUA.
- 2.6. Ibiurreko urtegia.

### 3. Bizitegi-lurzoruak eta jarduera ekonomikoetarako lurzorua.

- 3.1. Babes- eta birgaitze-operazioak egitea ondare kultural higiezin (Alegia eta Tolosako hirigune historikoak) babesteko eta ondare horren garrantzia aditzera emateko, eta dentsitate-maila altuko eta/edo degradatutako asentamenduen eraikuntza-baldintzak, hirigintza eta bizigarritasuna hobetzea.
- 3.2. Villabona-Zizurkil eta Tolosa arteko sarea birgaitzea eta eraldatzea honako hauek lortzeko: hiria berritzea, dagoen bizileku- eta industria-parkea optimizatzea eta narriatuta eta/edo zaharritutako eremuetako hiriko ingurune-kalitatea hobetzea.
- 3.3. Besteak beste, Villabona-Anoeta ibaiertzeko eta Tolosa-Ibarra inguruko hiri-garapenean lehenasuna duten jarduketak.
- 3.4. Dentsitate txikiko bizitegi-eskaintza mugatua; oro har, landa-eremuko herriguneetara mugatuko da.

### 4. Ekipamenduak.

- 4.1. Ekipamendu berriak udalerrri nagusiko hirigunean.
- 4.2. Hiri inguruetakoko parkeen zuzkidurak.
- 4.3. Lurralderako sarbideekin lotutako ekipamenduak. Erakundeak eta espazio libreak natur ingurunean.
- 4.4. Aisialdi eta atsedenerako eremuen sarea
- 4.5. Ingurumen-ibilbideen sarea.

### 5. Lurraldearen kudeaketa.

### 5.1. Plangintzak bateragarri egitea.

B.- Ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozedura bateratuaren azterketa analizatuta, kontsideratzen da bete egin direla Ingurumen Sailburuordetzak 2006ko ekainaren 13an emandako ebazpenaren bidez igorritako «Tolosako (Tolosaldea) jardute-eremuko Lurralde Plan Partzialaren» ingurumen-inpaktuari buruzko alde zuzeneko txostenean ezarritako baldintzak, zeina Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendurako Zuzendaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatu zuten.

Ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-prozedura arautzen duen uztailaren 22ko 183/2003 Dekretua eta hainbat planek eta programak ingurumenean duten eragina ebaluatzeari buruzko apirilaren 28ko 9/2006 Lege Orokorrek aplikatuta, eta behin ebaluazio-prozesua, ingurumen-jasangarritasunaren eta -kalitatearen txostena aztertuta, egindako kontsulten emaitzak ikusita eta planaren aplikazioak izan ditzakeen eragin adierazgarriak nola kontuan hartu eta aztertu diren ebaluatuta, kontsideratzen da honako azken zehapenak gehitu beharko zaizkiola planaren proposamenari:

→ Aplikagarria den EAEko Natura 2000 Sarearen barneko eremuak Batasunaren intereseko leku izendatzen dituzten dokumentu espezifikoaren araudi eguneratuari erreferentzia egin beharko zaio. Alde batetik, zenbait leku Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzen dituzten dekretuei egin beharko zaie erreferentzia:

- 84/2016 Dekretua, maiatzaren 31koa, Aralar (ES2120011) Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzeko dena.
- 215/2012 Dekretua, urriaren 16koa, eskualde biogeografiko atlantikoko hamalau ibai eta estuarioren Kontserbazio Bereziko Eremuak izendatzeko eta kontserbazio-neurriak onartzeko dena. (Besteak beste, Oria garia, Araxes eta Leitzaran)
- 219/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Hernio-Gazume (ES2120008) Kontserbazio Bereziko Eremu izendatu, eta hura kontserbatzeko neurriak ezartzeko dena.

Bestetik, aipatutako Dekretuez gain, eremu horietan aplikagarriak diren arauak ere aipatu beharko dira:

- 34/2015 Dekretua, martxoaren 17koa, ingurune hidrikoari lotuta dauden Kontserbazio Bereziko Eremuetarako (KBE) eta Hegaztien Babes Bereziko eremuetarako (BBE) arau orokorrak onartzen dituen (Leitzaran ibairako eta Araxes eta Oria garaia ibaietarako KBEak)
- 168/1994 Dekretua, apirilaren 26koa, Aralar eremuko baliabide Naturalak Antolatzeko Plana onartzen duena; uztailaren 13ko 146/2004 Dekretuak aldatua.
- Leitzaran ibaia babestutako biotopo izendatu zuen irailaren 29ko 416/1995 Dekretua.

→ Ereduaren zehaztapenak eta garapenak plan eta proiektu bakoitza lurralde-antolamendua osatu eta baldintzatzen duten aspektu guztien legeriarekin eta banakatutako araudiarekin bat etortzea eskatuko du, bereziki, uholdeak izan daitezkeen eremuetakoekin. Ibilguen baldintza naturalei eusteko helburuarekin egingo dira jardute-eremuko plan partzialen aurreikusitako jarduketak eta jabari publiko hidraulikoari eragiten dioten garapen-planamenduak. Horrek barne hartzen ditu EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak ezarritako distantziak errespetatzea, ibilgu-oheak mantentzea eta ibaiertzeko landaredia mantentzea eta hobetzea, baita garapen berriek eremuan bertan edo ibaian beheko eremuan alde zuzeneko zegoen arriskua handitzen ez dutela bermatzea ere. Eguneratutako uholde-arriskuen mapen arabera uholde-arriskua duten eremuetan egingo diren garapen berriek eremuaren ebaluazio bat aurkeztu beharko dute,

zeinetan esku-hartzearen efektuak aurreikusi eta indarrean dagoen araudia beteko dela bermatuko den.

- Garatzeke dagoen printzipio nagusi gisa, eremuko plan partzialak eskualdeko baliabide naturalak eta beren kalitate paisajistiko eta ingurumen-kalitatea babestea, hobetzea eta duen garrantzia aitortzea da; are gehiago, plan partzialaren proposamenetako bat da lurzoru urbanizaezinaren eremua zehaztea eta sailkapen orokor bat egitea. Era berean, lurraldeko plan partzialak proposatzen duena da arlo horren gaineko eskumena duten sailek planak eta dagozkien programak eta ekintzak garatzea, babes-, kontserbazio- eta hobekuntza-xedeak lortzeko eta arloaren esparru erregulatzailea osatzeko. Horien emaitzak dokumentu honen planeamenduari eta garapen-araudiari gehituko litzaizkieke, hala balegokie. Edozein kasutan, neurri hori ezarri arte, azken batean udal planeamendua izango da analisirako eskala egokiarekin honako hauek identifikatu beharko dituen: ondo kontserbatutako tokiko basoak, egoera oneko ibai multzoak, barnealdeko hezeguneak, nabarmendutako edo landaredi bereziko eremuak eta, orokorrean, ekologiaren, kulturaren, paisaiaren edo horien guztien ikuspuntutik baliotsuak diren elementu guztiak; zehazki, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan kategoria berezian identifikatzen direnak. Horrela, eremu horiei kategoria bera emango zaie udal araudietan.

Oria ibian zehar, Villabona eta Tolosa-Irura tartean zehatz-mehatz, kudeaketa-plan onarturik ez duten puntu sentikor eta eremu espezifikoak identifikatu dira, espezie mehatxatuei loturikoak: uhalde-enara (*Riparia riparia*) eta txirritxo txikia (*Charadrius dubius*). Eremu horietako hiri-garapenerako planek eta proiektuek kontuan hartu beharko dute espezie kaltebera horien existentzia, eta espezieen kontserbazioa baloratzen duten planek emandako preskripzioak kontuan hartuko dituzte eremuak zehazterakoan eta muga orokor eta espezifikoak ezartzerakoan.

Era berean, Lurralde Plan Partzialaren izaera (1/30.000 eskala) eta *Carpinus betulus*, *Coeloglossum viride* eta *Stegnopterna pozoii* espezieen populazioa eta habitaten dentsitate-maila dela eta, horien guztien ingurumen-analisiak eskala egokian egindako azterketa bat behar da. Azterketa hori dagozkion kudeaketa-planek, plan sektorialek eta/edo lurralde plan partzial honetako garapen-planek (Ondarea Kontserbatzeko Planak, besteak beste, Espezie Mehatxatuen eta Jardute Eremuko Basabizitzaren Plana) eta udal planeamenduek egin beharko dute. Edozein kasutan, udalerri horietako planeamendu orokorraren ingurumen-ebaluazio bat ere egin beharko da, eta inguruabar horiek kontuan hartuta eta subsidiarotasun-printzipioari jarraikiz, ebaluazio hori izango da lurzoru urbanizaezinaren sailkapena erabakiko duena eta eremu horietan egingo diren erabilerak eta ekintzak erregulatuko dituen.

- Euskal Autonomia Erkidegoko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Plana behin betiko onartu zuen Dekretua aldatzeko den urriaren 30eko 231/2012 Dekretuaren bidez izendatu zen I. taldeko hezegune Usabelartza zohikaztegia, B1G1\_04 kodearekin ingurumen-dokumentuan jaso behar dena.

Zentzu horretan, jardute-eremuan identifikatu eta bildu beharko dira «EAEko geodibertsitate estrategia 2020» dokumentuan (2014ko maiatzean Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak editatua) jasotako interes geologikoko eremuak, zehazki, honako hauek: Arritzagako sakaneko ebaki Jurasiko-Urgondarra (zati bat Amezketako udalerrian), Zazpiburrietako ur-begia (zati bat Amezketako udalerrian), Arritzagako haran glaziarra eta morrenak (zati bat Amezketako udalerrian), Txindokiko tontorrak eta kareharriak (zati bat Abaltzisketa eta Amezketako udalerrietan), eta Hernioko sinklinal esekia (erliebe alderantzikatua) (zati bat Albiztur eta Alkiza udalerrietan dago).

- Tolosa (Tolosaldea) jardute-eremuko Lurralde Plan Partzialak bere lurralde-eremuaren barnean hartzen ditu lurralde administrazioaren sailen planak eta proiektuak, zehazki, hornidurari, saneamenduari, hondakin solidoen tratamenduari, uholdeen prebentzioari eta energia- eta telekomunikazio-azpiegiturei dagozkienak. Dagozkion plan sektorialak eta proiektuak garatzerakoan planteatuko dira kasu bakoitzerako egokiak diren garapen-, kokaleku- eta funtzionamendu-alternatibak, eta justifikatu egingo dira lurralde plan partzial honetan ingurumen-irizpideak integratzeko.

Zentzu horretan eta ingurumen-dokumentuak adierazten duenari jarraikiz, «Villabona-Anoeta ibaiertzeko hiri-garapenerako lehentasunezko jarduketak» atalari dagokion A3.3 proposamenari loturiko eremutik gertu dagoen ibai-tarte horretan dute bizilekua bi espeziek: uhalde-enara (*Riparia riparia*) eta txirritxo txikia (*Charadrius dubius*). Biak ala biak daude onarturiko kudeaketa-planik gabeko espezie kalteberen barruan sailkatuta. Eragindako udalerrietako udal planeamenduak izango dira eremu horietako erabilerak eta ekintzak erregulatuko dituztenak, betiere aipatutako inguruabarrak kontuan hartuta.

Aduna-lkaztegieta bide-ardatza birgaitzeari dagokionez, lkaztegieta udalerrian identifikatutako eremu kritikoaren landa-izaerari eutsi beharko zaio Igarobide Ekologikoen Sarea bikain integratu dadin proposatutako lurralde-ereduan.

- Turismoari eta aisialdiari lotutako ekintzak ezartzeak izan dezakeen inpaktua minimizatzeko jarraibideei dagokionez, Lurraldeko Plan Partzialak ulertzen du garapen-planeamenduak baloratuko duela eremua egokia den aisialdi- eta jolas-aukerak ezartzeko. Ahal den neurrian saihestu egingo da Naturagune Babestuetan aisialdi-ekintzei bide ematea.

**Bigarren.-** Ebazpen honen edukia Gipuzkoako Foru Aldundiari jakinaraztea.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko urriaren 19a.



Ivan Pedreira Lanchas.  
Ingurumenaren Administraziooko zuzendaria.